

Abertzaleek egindako kanpainari egotzi dio Villarrek Guardia Zibilaren kontrako eraso

«Kale borroka» bultzatzen dutenak «norbait hil nahian» dabiltzala adierazi du

Agentziak / Bilbo

Enrique Villar Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkariak Espainiako Segurtasun Indarren kontrako kanpaina, *Alde Hemendik!* kanpaina, jo du atzo Ondarroan gertatutako erasoaren erantzuletzat. Villarrek ohartarazi zuen halako erasoak norbait hil dezakeela, «norbait hil nahian ari direlako».

ENRIQUE VILLARREN iritziz, indar abertzaleek Segurtasun Indarrek Euskal Herritik alde egiko daramaten kanpainaren «jarraipena eta ondorioa» baino ez da eraso. «EAJ eta EA kanpaina horretan daude. Nik ez diet EAJ eta EAri erasoaren egile izatea leporatzen, baina egileen taldean daude», adierazi zuen Villarrek. Ildo horretan, EAJ eta EAri aukeratutako bidearen inguruan gogoeta egiteko eskatu zien. «Alderdi abertzale demokratikoak, nahiz eta deitura hori gero eta zalantzagarriagoa izan, estutasun batean sartzen ari dira; gero eta gutxiago ulertzen ditut», gaineratu zuen.

Villarren ustez, «kale borroka» norbait hil dezake hil, hori baita bilatzen dutena. «Eskua joan dakie koktelak botatzen eta guardia zibil bat kiskaltzen; aurkako kasuan ere, bidezko defentsan, gauza bera gerta daiteke. Kasu horretan, akzio-erreakzio printzipioari jarraituz, ekintzaren egilea-



TXEMA FERNANDEZ / EFE

Guardia Zibilaren Ondarroako kuartelaren irudia, eraso gertatu ondoren.

rena litzateke errua», azaldu zuen Espainiako Gobernuaren ordezkariak.

«Halako ekintzekin ez digute bizitzen uzten. Gizartearen sektore bati, bizitza barkatu dien sektore bati, bizitza ezinezkoa egiten diote», adierazi zuen. Villarrek gaineratu zuen, bitartean gizarteko beste sektore bat «oso eroso» bizi dela.

Villarrek halako gaiei garrantzi gehiegi ez zaiela eman behar adierazi zuen horren ostean. Esan zuenez, gertakari horiei «duten garrantzia» eman behar zaie, «baina gaia gehiegi nabarmendu eta azpimarratzen ibili gabe».

Molotov koktelak jaurti dituzte Ondarroan Guardia Zibilaren kontra

ZENBAIT kaputxadunek molotov koktelak jaurti zituzten atzo goizalean Ondarroako Guardia Zibilaren kuartelaren kontra. Espainiako Gobernuak Bizkaian duen ordezkari-tzatik informazio agentziei adierazi zitzaenez, eraso atzo goizaldeko 01:10ean gertatu zen. Agentzien arabera, lau bat kaputxadunek sei edo zortzi molotov koktel jaurti zituzten kuartelaren kontra.

Erasoan guardia zibil batek zauri arinak jasan zituen, molotov koktelen ondorioz piztutako suak aurpegian erredurak eragin baitzizkion. Guardia zibila Ondarroako ambulatortora eraman zuten, eta han sendatu zizkioten zauriak; ez zuten ospitale-eraman behar izan. Espainiako Gobernuaren ordezkari-tzatik adierazi zuten, 06:00etarako lanera itzultzeko prest zegoen.

Balza: «EHk badaki kale indarkeriak elkarlan prozesuan aurrera egitea galarazten duela»

Agentziak / Bilbo

JAVIER BALZA Herrizaingo sailburuak atzo *Deia* egunkariak argitaratutako elkarrizketan adierazi zuenez, kale indarkeria traba bat da alderdi abertzaleen elkarlana sakontzeko. «Eta EHk badaki indarkeriak elkarlan prozesua galarazten duela erakundeetan, eta herri honetako prozesu politikoa ere zailtzen duela», adierazi zuen Balzak.

Nolanahi ere, Balzak adierazi zuen ez duela zalantzarik EHren apustu politikoaren inguruan: «Uste dut EHk bide instituzional eta politikoaren alde egindako apustua serioa dela; baina, aldi berean, uste du inguru horretan badagoela oraindik hori onartu ez duenik ere». EAEko Herrizaingo sailburuaren iritziz, EHk egin behar «erabakigarria» du, «ez indarkeria kontrolatzen, baina bai behin betiko eta publikoki estalki politikoa kentzen».

Xabier Arzalluzek ildo beretik hitz egin zuen atzo, eta EHren bide politikoaren aldeko apustua benetakoa dela esan zuen. Arzalluzek adierazi zuenez, EHk badu kale indarkeria desagertzeko «interesa», «uneotan egiten ari den lanaren kontrakoa baita». EAJko Euzkadi Buru Batzarreko lehendakaria atzo Radio Euskadi irratiari egindako adierazpenetan esan zuen, bere ustez, EHk ez duela kale indarkeria «bultzatzen».

erreakzioak

Jose Maria Aznar • Espainiako Gobernuako presidentea

«HBko batzuen gaitzespenak gertakari bakartuak baino ez dira»

► Jose Maria Aznar Espainiako presidentea «kontuz» ibiltzeko ohartarazi zuen atzo, HBko hainbat kidek indarkeria ekintzen inguruan egindako gaitzespenak «adierazpen bakartuak» direlako. «Ez dira gauzak bere onetik atera behar, mesede txikia egiten baitiogu gure buruari», adierazi zuen. Izan ere, Aznarrek esan zuen ez direla «gaitzespen erabatekoak, ekintza konkretuei buruzkoak baizik». «Une honetan onartezina da indarkeria justifikatzea eta ez gaitzestea», gaineratu zuen Finlandian eskainitako prentsaurreko batean Espainiako presidentea.

Iñaki Antiguiedad • EH

«Ez gaitzestea ez da ekintza horiek babestea»

► Iñaki Antiguiedad iritziz, indarkeria ekintzek «ez dute justifikazio politikorik»; «baina ni ez naiz gertakari horiek gaitzesten hasiko», gaineratu zuen. Javier Balzak egindako adierazpenei erantzunez, honela hitz egin zuen EHko legebiltzarkideak: «Ez dira nahastu behar EHk gaitzespen hitzaren jokoan sartu nahi ez izatea eta ekintza horiei babes ematea». Gizartearen presoen inguruan «ezinegona» dagoela adierazi zuen Iñaki Antiguiedadek. Baina haren iritziz, «konponbidea ez da hamar minututan adrenalina guztia hustu eta lasai gertatzea, baizik eta politikoki gehiago jokatzea».

BBB •

«Kale indarkeriak, inmobilismoak eta Espainiako Gobernuak prozesua geldotzen dute»

► «Espainiako alderdien inmobilismoak, Gobernuak eta indarkeria uzteko gai ez diren eta kale istiluekin mehatxatzen duten ENAMeko sektore batzuek prozesua geldotzen dute», adierazi zuen atzo EAJko BBBk, hedabideei igorri prentsa ohar batean. Euskal Herriak asteotan bizi duen egoera politikoa aztertzeko bilera egin zuen BBBk herenegun, eta han adostu zuten adierazpen hori.

Javier Madrazo • IU-EB

«EHk errotik moztu behar luke»

► Kale istiluak «gelditzeko deialdi zu-

zen» bat egiteko eskatu zion atzo Madrazok EHri. Haren iritziz, EHk «errotik moztu behar litzuke» indarkeria ekintzak. Esan zuenez, EH «dinamika oso arriskutsuan» sartu da, kale indarkeiak, pertsona eta ondasunez gain, prozesua bera ere kaltetzen baitu.

Rosa Diez • PSOE

«Ez dakit zer gehiago jazo behar den EAJk HBrekin hausteko»

► «Egibarrek HBren gaitzespenak nahiko direla esatea oso kezagarria da. Indarkeriara ohitu gaitzen nahi dutela dirudi». EAJk Jaurlaritzan EHrekin duen akordioari buruz honela hitz egin zuen Diezek: «Ez dakit zer gehiago jazo behar den EAJk eta Ibarretxek HBrekin hausteko».